

PRENTSARAKO OHARRA
2019/09/24

Bizkaiko Batzar Nagusiek 60.000 euro bideratuko ditue aurton Saharako biztanleriarentzako lankidetzaren proiektuetara eta giza laguntzara

Bizkaiko Foru Ganbarak berretsi egin dau gaur munduan egoera txarrean dagozan herriak daukan konpromisoa, Euskal Fondoagaz (Lankidetzaren aritzen diran Euskadiko Toki Erakundearen Alkartea) alkarlanerako hitzarmena sinatuz. Ana Otadui eta Maite Etxebarria, Bizkaiko Batzar Nagusien eta Euskal Fondoaren arduradun nagusiek, hurrenez hurren, sinatu dabe erakunde biek Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari (SEAD-RASD) laguntzeko giza ekintzako jarduerak aurrera eramateko lankidetzarako esparrua ezarten dauen akordioa. Batzar Nagusiek 60.000 euro bideratuko ditue aurton xede horretara, eta Euskal Fondoari ordainduko jakoz hamar egun balioduneko epean.

Euskal Fondoak garapen bidean dagozan herrialdeakaz lankidetzaren egiten dau behar, ekonomia eta gizarte arloko garapena bultzatuko daberen proiektuen sustapenaren, finantzaketaren eta kudeaketaren bitartez, bardintasun, alkarren arteko lankidetzaren eta komunitate bakoitzaren kultura propioaren errespetu erespideetan oinarrituta.

“Hitzarmena dairetako emakumeen bizitza kalidatea hobetzera zuzenduko da”, azaldu dau Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria, eta defendidu dauenez, “Bizkaiko herria solidarioa da, eta bertako parlamentua be solidarioa izan behar da”. Maite Etxebarria Euskal Fondoko Presidenteak, bere aldetik, adierazo dauenez, “hitzarmen honen sinadureagaz beste pauso bat emon dogu Saharako herriagaz daukagun konpromisoan, Mendebaldeko Sahara ahaztuaren errealidadetik atarateko ahalegina eginez. 400 desagertu baino gehiago dagoz bertan”.

Sinadura ekitaldian Brahim Ahmed Fronte Polisarioaren Euskadiko ordezkaria, Juanma Alberdi Euskal Fondoko zuzendaria, eta Euskadiko tokiko 114 administrazio batzen dituan azken erakunde horretako Ioana Osa egon dira. Bizkaiko Batzar Nagusiak ordeztuz Begoña Gil, Zigor Isuskiza eta Emilio Lobato egon dira, lehenengo lehendakariordea, bigarren lehendakariordea eta mahaiko bigarren idazkaria, hain zuzen be.

SEAD-RASD lehentasunezko esparrua da Euskal Fondoaren lankidetzaren arloan. Holan, Sahara Koordinazio Unidatea (SKU-UCS) sortu eban 2003an. Unidate horrek alkartasunezko jarduerak osatutako mosaikoa koordinetan dau Saharako agintarien, Euskadiko erakunde publikoen eta Fronte Polisarioak Euskadin daukan Ordezkaritzaren artean. Bizkaiko Batzar Nagusietatik Saharako biztanleei laguntzea erabagi da, Bizkaia eta SEAD-RASDaren artean dagozan alkartasun, adiskidetasun eta lankidetzaren loturak dirala eta.

Saharako errefuxiatuen kanpalekuetara zuzenduta ezarri diran esku-hartzeko arloak garapenerako nazinoarteko lankidetzak, giza ekintza eta garapenaren aurreko sentsibilizazioa eta hezkuntza dira. Euskal Fondoa izango da akordioaren babespean diruz lagundutako proiektuen kudeaketaren eta egikaritzearen arduraduna, eta Bizkaiko Batzar Nagusien aurrean aurkeztu beharko ditu gauzatutako jardueren egiaztagiriak, gastuen zerrendak, fakturak eta txostena. Lankidetzarako hitzarmenaren indarraldia 2020ko irailaren 30era arte luzatuko da.

NOTA DE PRENSA
24/09/2019

Las Juntas Generales de Bizkaia destinarán este año 60.000 euros a proyectos de cooperación y ayuda humanitaria para la población saharauí

La Cámara Foral de Bizkaia ha reafirmado hoy su compromiso en favor de las poblaciones más desfavorecidas del mundo con la firma de un convenio con Euskal Fondoa (Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes). Ana Otadui y Maite Etxebarria, máximas responsables de las Juntas Generales de Bizkaia y de Euskal Fondoa, respectivamente, han rubricado el acuerdo que establece un marco de colaboración para la realización de actividades de acción humanitaria en apoyo a la República Árabe Saharaui Democrática (RASD). Las Juntas destinarán este año y a este fin una subvención total de 60.000 euros, que serán abonados a Euskal Fondoa en el plazo de diez días hábiles.

“El convenio se destinará a mejorar la calidad de vida de las mujeres de las diferentes dairas”, ha explicado Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, quien ha defendido que “el pueblo de Bizkaia es solidario y su parlamento también tiene que serlo”. Por su parte, Maite Etxebarria, presidenta de Euskal Fondoa, ha destacado que “con la firma de este convenio damos un paso más en el compromiso con el pueblo saharauí, intentando sacarles de la realidad del olvido del Sáhara Occidental, donde hay más de 400 personas desaparecidas”.

En la firma han estado presentes Brahim Ahmed, representante del Frente Polisario en Euskadi, Juanma Alberdi, director de Euskal Fondoa así como Ioana Osa, también de este último organismo que reúne a 114 administraciones locales vascas. En representación de las Juntas de Bizkaia, han acudido también Begoña Gil, Zigor Isuskiza y Emilio Lobato, vicepresidenta primera, vicepresidente segundo y secretario segundo de la Mesa, respectivamente.

Euskal Fondoa contribuye a la cooperación con los países en vías de desarrollo, mediante la promoción, financiación y gestión de proyectos que promuevan el desarrollo económico y social, con criterios de igualdad, colaboración mutua y respeto a las culturas propias de cada comunidad.

La RASD es un ámbito prioritario de la acción en cooperación de Euskal Fondoa, que creó en 2003 la Unidad de Coordinación Sáhara (UCS). Esta unidad coordina un mosaico de actividades de solidaridad entre las autoridades saharauíes, las instituciones públicas vascas y la Delegación del Frente Polisario en Euskadi. Desde las Juntas Generales de Bizkaia, se ha decidido ayudar a la población saharauí por los lazos de solidaridad, amistad y cooperación recíproca existentes entre Bizkaia y la RASD.

La cooperación internacional para el desarrollo, la acción humanitaria y la sensibilización y educación para el desarrollo son las áreas de intervención establecidas y destinadas a los campamentos de población refugiada saharauí. Euskal Fundazioa será la responsable de la gestión y ejecución de los proyectos subvencionados al amparo de este acuerdo y tendrá que justificar ante las Juntas Generales de Bizkaia los justificantes, relación de gastos, facturas y memoria de las actividades realizadas. El convenio de colaboración tendrá vigencia hasta el 30 de septiembre de 2020.